

Ireki da Zazpiturrieta kalea

Azken eguneratzea: Asteartea, 26 Abendua 2017 11:06

Argitaratua: Ostirala, 22 Abendua 2017 13:25



Irisgarritasuna eta erosotasunaren alde, Zazpiturrieta kalea berrurbanizatzeko lanak amaitu dira eta trafikoari zabaldu da

Uda sasoian hasi ziren lanak aurreikusitako epean burutu dira

Kaleak herritarren beharretara egokitzeko Udalaren helburu nagusiari jarraituz Zazpiturrieta kalea berrurbanizatzeko lanak amaitu dira eta ireki da trafikora.

Atzemandako beharrei erreparatuz, lehentasuna zuten tokietan jarri du begia Udal gobernuak. Irisgarritasuna, saneamendu zerbitzuen berritzea eta azken batean pertsonen bizi kalitatean eragin zuzena dute hirigintza lanak.

Zazpiturrieta kalean egin diren lanei dagokionez, mendiaren kontrako espaloi zatia kendu eta etxeetan dagoena zabaldu da eta kalea asfaltatzeaz gain saneamendu zerbitzuak berrituko dira. Honela

Ireki da Zazpiturrieta kalea

Azken eguneratzea: Asteartea, 26 Abendua 2017 11:06

Argitaratua: Ostirala, 22 Abendua 2017 13:25

oinezkoentzako ibilbidea handitu eta erraztu da erosotasuna handituz. Gainera bi atarrietako irisgarritasuna hobetu da eskailerak kendu eta sarbidea espaloiarene maila berean jarriz. Honekin batera ere, Esteban Lasa kalearen bidegurutzean dauden bi lorategietako parterrak berritu dira korten altzairuaz egindako itxitura batekin.



Lorategietako itxitura berritu da baita ere

Otegi-Gaztañaga enpresak burutu ditu lanak 211.323,86€ko (+BEZ) prezioan eta lanak burutzeko aurreikusitako epea bete da; bost hilabete eta erdi.